

Esamoldeak eta beste:

01.- Aparatoaren argi gorria piztuta zegoela ikusi zuenean, aitona zaharra bere istorioa kontztzen hasi zen . (95-9-26)

ekin

02.- Hori da zioa egin ziguna, damu dut horrekin hizketan jardun izanaz. (95-9-26)

damutu

03.- Ezer zehatzik ez dakit, hori egia da; baina, jakina, nik neuk juzkuak egin ditut. (95-6-8)

nago.

04.- Arrotza aizto txiki batez sutondoko txotx puska bat zorrotzen hasi zen, nire ardura handirik gabe. (95-10-10)

ekin

05.- Aiztoaren aho bakoitzean zerbait idatzirik zegoela iruditu zitzaidan .(95-10-10)

zeukala.

06.- Betirako dena ez da ohartzen mundutarron lehian gertatu ohi diren trabesez, beharrezko loturez... pentsatu nuen neure kabutan. (95-10-10)

erreparatzen

07.- Beharbada, lehendabiziko hauek oso gutun eskasak direla pentsatuko duzu, baina piskana-piskana moldatuko naizela uste dut. (94-6-9)

iritziko

08.- Ez zenekiten? Patxi apaiz egitekotan dabil! (94-5-7)

ala?

09 .- Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango direla diote jakitunek. (94-5-7)

omen

10.- Esango nuke txakur hau ez dela hori bezain gaiztoa. (94-4-30)

_____ematen.

11.- Gazteak eta zaharrak, oihu eta barre egin ondoren, beren aurpegiak pintatzen hasi ziren (93-9-23)

_____ekin_____.

12.- Ahal duena egiten duenari, ezin gehiago eskatu. (93-9-23)

_____esku_____.

13.- Abilezia handia du horrek horrelako lanetan. (93-9-23)

Mutila_____.

14.- Orain ere, zaharra izan arren, hiri irabazteko gauza naun. (93-9-23)

_____zaharrear_____.

15.- Itsasontzian zihoala, botalarria etorri zitzaion. (93-9-23)

_____botalarriak_____.

16.- Ahal dudan artean lanean jarraituko dut. (93-9-23)

Gauza_____.

17.- Zaila izango zaigu pelotari horri irabaztea. (93-9-23)

Lanak_____.

18.- Gaisoaren egoera gero eta okerragoa da. (93-9-23)

Egunetik_____.

19.- Zerbait esan behar niola; horixe bakarrik pentsatu nuen bidean . (93-9-23)

_____besterik_____.

20.- Nire aitak uste zuen urteak adina hartz hiltzen zituena bakarrik heltzen zela gizon izatera.

Nire aitaren_____.

21.- Juan Marik laster utzi beharko zituen eskolako lanak.(92-5-16)

_____beharrean.

22.- Altzon festak ziren, eta Erramon ez zen etxean geratuko.(92-5-16)

_____egoteko ona.

23.- Laster egiaztatu ahal izango nuen bezala, nire nagitasunak eta nire beldurrek ez zuten oinarririk. (92-5-16)

_____ gabeak _____.

24.- Antza denez, hiru izan dira autobideko istripu horretan zauritutakoak. (92-5-16)

_____ omen _____.

25.- Asier jatorra zen eta nekerik gabe entzuten zitzaion; bere anaia, berriz agure aspergarri bat zen. (92-5-16)

_____ besterik _____.

26.- Batere ahal badut, lagunduko dizut. (93-6-10)

_____ gauza _____.

27.- Eta, pentsatzen jarrita, horregatik ez ziren etorriko guregana predikatzailerak. (93-6-10)

_____ utziko _____.

28.- Handik ordu batzuetara sentimendu nahasiak bere bihotzaz jabetu ziren. (93-6-10)

_____ hartu _____.

29.- Eta gordeak zituen janari hauek irabazbide egokia eman behar ziotela pentsatu zuen Ezekiel burugogorrek. (93-6-10)

_____ bururatu _____.

30.- Auskalo non izkutatu den! (93-6-10)

Batek _____.

31.- Gau iluna zen eta itzalak soilik ikusten genituen. (93-6-10)

_____ besterik _____.

32.- Bi anaiak elkarrekin ondo konpontzen ziren. (93-6-10)

_____ hartzen _____.

33.- Peru haserre dago, berak esandakoari kasurik egiten ez diogulako. (93-6-10)

_____ aintza... _____.

34.- Ohea jartzeko lekurik ere ez dugu. (93-6-10)

_____non_____.

35.- Aurten ikuskizun gehiago daudela uste dut. (92-10-6)

_____ematen_____.

36.- Etxe oneko alaba zenez, Xalbadorren gurasoek begia bota zioten eta mutilak onartu. (92-10-6)

_____jo_____.

37.- Ezagutzen al duzu bere burua hil duen kirolaririk? (92-10-6)

_____beste egin_____.

38.- Hain gaizki bazegoen, bazeukan lehenago esatea. (92-10-6)

_____besterik_____.

39.- Berehala telefonoz poliziari gaztigatzeko gogoia etorri zait. (92-10-6)

_____eman_____.

40.- Galdetu ere egin zion bazterturiko aulki zaharrez, baina bikarioari modu onean erosi zizkion antikuario batek. (92-10-6)

_____salduak_____.

41.- Banindoala etxe aldera eta Arrasatera iritsi baino lehen neure auto hori ibili ezinik geratu zait!
(92-10-6)

_____ba!_____.

42.- Unibertsitateko ikasturte berriaren hasiera-ekitaldian sailburua erdara hutsean mintzatu zen.
(92-10-6)

_____hitzein_____.

Esamoldeak eta beste:

01.- Aparatoaren argi gorria piztuta zegoela ikusi zuenean, aitona zaharra bere istorioa kontatzen hasi zen . (95-9-26)

Aparatoaren argi gorria piztuta zegoela ikusi zuenean, aitona zaharrak bere istorioa kontatzeari ekin zion.

02.- Hori da zioa egin ziguna damu dut horrekin hizketan jardun izanaz. (95-9-26)

Hori da zioa egin ziguna, damutu zait horrekin hizketan jardun izana.

03.- Ezer zehatzik ez dakit, hori egia da; baina, jakina, nik neuk juzkuak egin ditut. (95-6-8)

Ezer zehatzik ez dakit, hori egia da; baina, jakina, nik neuk juzkuak eginda nago.

04.- Arrotza aizto txiki batez sutondoko txotx puska bat zorrozten hasi zen, nire ardura handirik gabe. (95-10-10)

Arrotza aizto txiki batez sutondoko txotx puska bat zorrozteari ekin zion, nire ardura handirik gabe.

05.- Aiztoaren aho bakoitzean zerbait idatzirik zegoela iruditu zitzaidan .(95-10-10)

Aiztoaren aho bakoitzak zerbait idatzirik zeukala zirudien (?).

06.- Betirako dena ez da ohartzen mundutarron lehian gertatu ohi diren trabesez, beharrezko loturez... pentsatu nuen neure kabutan. (95-10-10)

Betirako denak ez ditu erreparatzen mundutarron lehian gertatu ohi diren trabesez, beharrezko loturez... pentsatu nuen neure kabutan.

07.- Beharbada, lehendabiziko hauek oso gutun eskasak direla pentsatuko duzu, baina piskana-piskana moldatuko naizela uste dut. (94-6-9)

Beharbada, lehendabiziko hauei oso gutun eskasak iritziko diezu , baina piskana-piskana moldatuko naizela uste dut.

08.- Ez zenekiten? Patxi apaiz egitekotan dabil! (94-5-7)

Ez zenekiten Patxi apaiz egitekotan dabilela, ala?

09.- Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango direla diote jakitunek. (94-5-7)

Hurrengo urteak oso euri gutxikoak izango omen dira. (“Omen direla” txarto dago.)

10.- Esango nuke txakur hau ez dela hori bezain gaiztoa. (94-4-30)

Txakur honek ez du horrek bezain gaiztoa (denik) ematen.

11.- Gazteak eta zaharrak, oihu eta barre egin ondoren, beren aurpegiak pintatzen hasi ziren (93-9-23)

Gazteek eta zaharrek, oihu eta barre egin ondoren, beren aurpegiak pintatzeari ekin zioten.

12.- Ahal duena egiten duenari, ezin gehiago eskatu. (93-9-23)

Bere esku dagoena egiten duenari ezin gehiago eskatu.

13.- Abilezia haundia du horrek horrelako lanetan. (93-9-23)

Mutila da hori horrelako lanetan.

14.- Orain ere, zaharra izan arren, hiri irabazteko gauza naun. (93-9-23)

Orain ere , nire zaharrean, hiri irabazteko gauza naun.

15.- Itsasontzian zihoala, botalarria etorri zitzaion. (93-9-23)

Itsasontzian zihoala, botalarriak eman zion.

16.- Ahal dudan artean lanean jarraituko dut. (93-9-23)

Gauza naizen artean lanean jarraituko dut.

17.- Zaila izango zaigu pelotari horri irabaztea. (93-9-23)

Lanak emango dizkigu pelotari horri irabazteak.

18.- Gaisoaren egoera gero eta okerragoa da. (93-9-23)

Egunetik egunera gaisoaren egoera gero eta okerrago da.

19.- Zerbait esan behar niola; horixe bakarrik pentsatu nuen bidean . (93-9-23)

Zerbait esan behar niola; besterik ez nuen pentsatu bidean.

20.- Nire aitak uste zuen urteak adina hartz hiltzen zituena bakarrik heltzen zela gizon izatera.
(94-10-10)

Nire aitaren ustetan urteak adina hartz hiltzen zituena bakarrik heltzen zela gizon izatera.

21.- Juan Marik laster utzi beharko zituen eskolako lanak.(92-5-16)

Jaun Mari laster egongo zen eskolako lanak utzi beharrean.

22.- Altzon festak ziren, eta Erramon ez zen etxean geratuko.(92-5-16)

Altzon festak ziren, eta Erramon ere ez zen etxean egoteko ona.

23.- Laster egiaztatu ahal izango nuen bezala, nire nagitasunak eta nire beldurrek ez zuten oinarririk. (92-5-16)

Laster egiaztatu ahal izango nuen bezala, nire nagitasuna eta nire beldurrak oinarririk gabeak ziren.

24.- Antza denez, hiru izan dira autobideko istripu horretan zauritutakoak. (92-5-16)

Hiru izan omen dira autobideko istripu horretan zauritutakoak.

25.- Asier jatorra zen eta nekerik gabe entzuten zitzaion; bere anaia, berriz agure aspergarri bat zen. (92-5-16)

Asier jatorra zen eta nekerik gabe entzuten zitzaion; bere anaia, berriz agure aspergarri bat besterik ez zen.

26.- Batere ahal badut, lagunduko dizut. (93-6-10)

Batere gauza banaiz, lagunduko dizut.

27.- Eta, pentsatzen jarrita, horregatik ez ziren etorriko guregana predikatzailerak. (93-6-10)

Eta, pentsatzen jarrita, horregatik utziko zioten predikatzailerak guregana etortzeari.

28.- Handik ordu batzuetara sentimendu nahasiak bere bihotzaz jabetu ziren. (93-6-10)

Handik ordu batzuetara sentimendu nahasiak hartu zioten bihotza.

29.- Eta gordeak zituen janari hauek irabazbide egokia eman behar ziotela pentsatu zuen Ezekiel buru gogorrak. (93-6-10)

Eta gordeak zituen janari hauek irabazbide egokia eman behar ziotela bururatu zitzaion Ezekiel buru gogorrari.

30.- Auskalo non izkutatu den! (93-6-10)

Batek daki non izkutatu den!

31.- Gau iluna zen eta itzalak soilik ikusten genituen. (93-6-10)

Gau iluna zen eta itzalak besterik ez genituen ikusten. (?)

32.- Bi anaiak elkarrekin ondo konpontzen ziren. (93-6-10)

Bi anaiek elakr ondo hartzen zuten.

33.- Peru haserre dago, berak esandakoari kasurik egiten ez diogulako. (93-6-10)

Peru haserre dago, berak esandakoa aintzakotzat hartzen ez dugulako.

34.- Ohea jartzeko lekurik ere ez dugu. (93-6-10)

Ohea non jarri (rik) ere ez dugu.

35.- Aurten ikuskizun gehiago daudela uste dut. (92-10-6)

Aurten ikuskizun gehiago daudela ematen du / dit.

36.- Etxe oneko alaba zenez, Xalbadorren gurasoek begia bota zioten eta mutilak onartu. (92-10-6)

Etxe oneko alaba zenez, Xalbadorren gurasoek begiz jo zuten eta mutilak onartu.

37.- Ezagutzen al duzu bere burua hil duen kirolaririk? (92-10-6)

Ezagutzen al duzu bere buruz beste egin duen kirolaririk?

38.- Hain gaizki bazegoen, bazeukan lehenago esatea. (92-10-6)

Hain gaizki bazegoen, lehenago esatea besterik ez zeukan.

39.- Berehala telefonoz poliziari gaztigitzeko gogoia etorri zait. (92-10-6)

Gogoak eman dit berehala telefonoz poliziari gaztigitzeko.

40.- Galdetu ere egin zion bazterturiko aulki zaharrez, baina bikarioari modu onean erosi zizkion antikuario batek. (92-10-6)

Galdetu ere egin zion bazterturiko aulki zaharrez, baina bikarioak modu onean salduak zizkion antikuario bati.

41.- Banindoala etxe aldera eta Arrasatera iritsi baino lehen neure auto hori ibili ezinik geratu zait!

(92-10-6)

Banindoala etxe aldera eta Arrasatera iritsi baino lehen neure auto hori ez zait ibili ezinik geratu, ba!

42.- Unibertsitateko ikasturte berriaren hasiera-ekitaldian sailburua erdara hutsean mintzatu zen.

(92-10-6)

Unibertsitateko ikasturte berriaren hasiera-ekitaldian sailburua erdara hutsean hitzegin zuen.